

TALAIAN

Sindikalismo abertzalea Madrilen

Sindikalismo abertzaleak (ELA, LAB, EILAS, ESK eta HIRU) manifestazioa egin zuen joan den astean Madrilen, sindikatu abertzale gailego, katalan eta kanariarrek batera. Manifestazio historikoa izan da, lehen aldiz Espainiako Estatu hiri buruan izan baita sindikalismo abertzalea. Lehen aldiz elkartu da, baita ere, Espainiako Estatu sindikatu nazionalistekin. Dena dela, bat baino gehiago harrituko zuen agerraldi horrek. Zer galdu zaigu bada Madrilen? Zein behar daukagu hara joateko gure independentzia sozial, sindikal eta nazionalaren alde borrokatzen baldin badugu? Sektore abertzaleetan horrelako hausnarketak izango ziren.

Badira, hala ere, errepika daitekeen keinu horren aldeko hainbat arrazoi. Sindikalismo abertzaleak, Madrilen bihotzean, lan harreman eta babes sozialen markoa Euskal Herrian erabakitze eskubidea aldarrikatu nahi izan du. Aldarrikapen horrek, administrazioarekin, patronalarekin eta espainiar sindikatuekin hitzartua izan den pentsio erreformaren, lan erreformaren eta negoziazio kolektiboaren kontra jo du. Hitzarmen horretatik kanpo geratzen dira langile euskaldun, katalan, galego eta kanariarren nahiak. Euskal sindikalismoak erakutsi nahi izan du badela sindikalismo sozial, aldarrikatzaile eta politikoa, UGT eta CCOO-ren jarduera burokratiko eta itunzalearen aldean. Bestalde, sindikalismo abertzaleak elkartzasuna erakutsi die Espainiako Estatu estaturik gabeko nazioetako sindikatu eta langileei.

Arrazoizkoa da, beraz, errepika daitekeen ekimen historiko hori. Parisen ere bai? Ez dezagun ahaztu Espainiako eta Frantziako Estatuak, biek, murrizten dituztela gure eskubideak, eta batik bat Euskal Herriak daukan erabakitze eskubidea urratzen dutela.

Juan Mari Arregi

Euskara tailerrak Azkoitiko etorkinentzat

AZKOITIKO UDALAK (Gipuzkoa) maiatzetik abendura arte hilean hamar orduko ikastaroak antolatuko ditu. Banaiz Bagara elkartearen ardura izango da tailerrok eskaintzea. Euskara eta euskal kultura eskainiko zaizkie herrian bizi diren etorkinei. Tankera horretako ikastaroak hainbat herritan antolatzen hasia dago Banaiz Bagara elkarte, hala nola, Urnieta, Andoain eta Villabonan. Topaguneak ere Auzoko programaren bidez antzeko ikastaroak antolatzen ditu. Azkoitikoak ordea, badu berezitasun bat. Udalak erabaki du etorkinek Sustraitze Sozialaren Txostena lortzeko ikastaroa egin beharko dutela. Txosten hori bizileku- eta lan-baimena lortzeko bali dezakete etorkinek. Dirudienez, lehen aldia da integrazio planetan udal batek halako ikastaroak derrigorrezko egiten dituen. Udalaren helburua etorkinen eta azkoitiarren arteko harreman hizkuntza euskara izatea da.

Eukoa neurketa enpresa sortu dute

IRIGOIENAZPIKO GUNEAREN baitan sortu da Eukoa enpresa. Andoaingo Udalak eta Larramendi Bazkunak abiatutako gunea da Irigoienazpi eta orain hedabideek eta IKTek hizkuntza ertainetan duten eragina aztertuko du. Besteak beste, euskaraz diharduten hedabideentzat audientzia datu zehatzagoak, kuantitatibo zein kualitatiboak aztertuko ditu.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Itziar Atienza aktoreak Gazteuzulon esanak: "Euskaraz dakienak jakin behar du hitz egiten ematen diola bizitasuna eta ez dakiena ohartu behar da zer mundu galtzen ari den. Sedukzioaren bidetik jo behar dugu erdaldunengana".

Aurkezpena:

ALEGLIAK ETA BERTZE NEURITZAK
 Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"
 Paratzailea: Henri Duhau
GRAMATIKA EMENDAKINAK ZUBEROAKO EUSKARAZ
 Jüje Etxebarne
KADET ETA BETTIRIÑO
 Paratzailea: Manuel Padilla Moyano
EGIATEGIREN FILOSOFO HUSKALDUNAREN EKHEIA
 2. liburukia
 Paratzailea: Txomin Peillen

Euskaltzaindia Sarako XXVIII. Idazleen Biltzarrean apirilaren 25ean, astelehenean

Argintzailea: Euskaltzaindia / Office public de la langue basque